

213. zk.

Bigarren aroa

Irailak 17
2013

Irungo
euskarazko
hamabostekaria

Irunero

Erreportajeak

Irungo Mendizaleak
Elkartek 65 urte
bete ditu



Kirolak

Leka Enea
Mahai Tenis taldea



Jose Ignacio Bermudez, MUGAN Merkatarien Elkarteko presidentea

“Kalitateak eta kokapen geografikoak
komertzioaren krisia arindu dute”

- 4 - 5 Abiadura 30 km-ra murriztu dute hirigunean
- 6 Olazabaldar familia boteretsuaren historia, liburu batean
- 9 Gau Lasterketaren II. edizioa irailaren 21ean
- 10 Eskola Kirola
- 11 Haurren leihoa. Irungo La Salle LH 4.
- 12 Gazteen lanak. Toki Alai BHI
- 13 Gaztea. Irun Rock Jaialdia



Sar
zaitez
web orrian eta
Facebooken



Jostamendi



www.jostamendi.com

- Jostailuak
- Mozorroak
- Motxilak

JOSTAILU GUZTIAK:
MODAKOAK ETA KLASIKOAK
SALNEURRI MERKEENAK
Prim, 59. Tel: 943 455300 Donostia
Letxunborro, 86. Tel: 943 457510 Irun

- Puerikultura ttikia
 - Paseatzeko silitak
 - Sehaskak
 - Haur kotxeak
- GIPUZKOAKO
ERAKUSKETARIK HANDIENA
Easo, 51. Tel: 943 470244 Donostia
Artaleku, 3. Tel: 943 638223 Irun



Zure jaioberria
zaintzen dugu



Xabier Kerexeta

"Madrileko emakumeek egin dute balentria..." Horrela hasten dira 1808ko maiatzakoari buruzko bertso lapurtar batzuk. Eta jarraitzen: "Espainian Herodes (hau da, errege tiranoa) eta Frantziaren Bonaparte, gerla horrek irau dezake horiek biak hil arte."

Bigarren Mendeurrena dela eta, donostiarrek oroitzera erabaki dute; irundarrok, ospatzea. Jakina, galtzaileak ez du zer ospatu, eta garaileak, bai. Garaileak, gu? Bada, bai, San Ramon egunean, abuztuaren 31n, San Martzial mendian izandako bataila irabazi genuelako. Arago, armada espainiarrak gerra luze eta anker hartan frantsesen aurka izan zuen garaipen bakarra gurean izan zen, eta gainera aliatuen laguntza gutxirekin, haietako asko eta asko Donostian erretzen eta arpilatzen eta bortxatzen eta hiltzen eta lapurtzen eta mozkortzen lanpetuta zeuden eta.

Oiasso Museoko erakusketak azaltzen duenez, suterik gabe ere Irunen larrutik ez baina lurretik ordaindu zen gerra, zorrak kitatzeko udal lursailen pribatiza-

Emakumeen balentriak

tzeari ekin baitzitzaion.

Baina Irunen ospatu egiten dugu. Eta ez nolana: egitandia handikiro berreginda. 40.000 soldaduen gorabeherak eta joan-etorriak antzetzeko... ehun lagun pasatxo baino ez; hori bai, emakumeak eta guzti, eta ez kantinera! Non eta Irunen! Erakusketan ikus daiteke 1813an, 1522an ez bezala, kantinerak bazeudela, eta emakumezko soldadurik ez... XVI.ean borrokan ari zirelarik. Tira: zorrotasun historikoa, zibilekiko enpatia, militarren triumfalismoekiko mesfidantza, bere burua nazionalista ez baina "normal" duen nazionalismoa detektatzeko gaitasun falta, agian, ez daude gure bertute kolektiboen artean; baina aitortu beharra dago oraindik orain betiko ezaugarriari, umore zentzuari, eutsi egiten diogula. 1808ko emakume espainolen balentriak Frantziako euskaldunek kantatu zituzten; baina irundarrok ederki jarrai dezakegu kantatzen, jakina erdaraz, akaso letra pixka bat aldatuta:

Irun, Irun, Irun, umore onaren hiria,
sanmartzial ospetsuak heldu orduko,
pozez gainezka San Martzial mendian,
han baitira emakumeen balentriak.

Irun atzo Irun gaur

Jenaro Etxeandia atzo



IUA: 38498

Jenaro Etxeandia gaur



Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:

Ana Grijalba
agrijalba@irunero.com

Kirolak: Naiara Hernandez
Lekuona

Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta

Publizitate kudeatzaileak:
Sonia Garcia Olazabal,
Lara Cañizo

lara@irunero.com,
sgarcia@baseclick.es

Argitaratzailea:
Baseclick S.L.

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 -
20304 IRUN

Tel: 673 39 84 57

www.irunero.com

Irungo Udalak plaza honi Jenaro Etxeandia deitzea erabaki zuen 1924an, 1872 eta 73an eta 1879tik 82ra Irungo alkate izan zenaren omenez. Ordura arte Merkatu plaza izena zuen, argazkian ikusten den bezala merkatua bertan zegoelako. Hain zuzen, Jenaro Etxeandia Balzolak alkate zela bultzatu zuen merkatu haren eraikuntza.

Bere seme Salvador Etxeandiak Stadium Gal eraikitzeke lurrak erosi eta eman zituen. Dohaintza eskertzeko, Udalak Seme Kuttun izendatu zuen.

Irungo herriak erakutsi zuen esker ona ere parekoa izan zen, 150.000 pezetako do-

haintza egiteagatik Udalak, familia osoari ohore egiteko, aitaren izena ipini baizion kale bati, eta amaren deitura, futbol zelai berriari. 1926. urtean bukatu zen Stadium Galen eraikuntza eta bertan Etxeandia familiarentzat palko berezi bat egin zen, Real Union handiaren partidua ikusteko.

Merkatuari dagokionez, Gerra Zibilaren ondoren berri bat altxatu zuten, Argentinaren Errepublikaren kalekoa. XXI. mendea hasi eta handik gutxira gaur egungo Merkairun ireki zen aurrekoa zegoen tokian.

Iturria: *Irungo kaleen izenak*. Jose Monje

Honako erakundeek Irunero diruz laguntzen dute:



“Kalitateari eta kokapen geografikoari esker krisiak ez du komertzioa gogorrago jo”

Azken bost urteotan Irungo merkataritza sektorean 750 lanpostu galdu dira eta 200 denda itxi dituzte. Datuak kezkarriak badira ere, Jose Ignacio Bermudezen ustez gure komertzioaren kalitatea eta hiriaren kokapen geografikoa dira krisiak gogorrago jo ez izanaren arrazoi nagusietako bi.

- Zehatzago, zein dira datuak?

2008. urtean 1.250 saltoki zeuden eta 3.373 langile zituen sektoreak. Gaur egun, 1.042 saltoki eta 2.629 langile. Establezimendu-dentsitateak oso altua izaten jarraitzen du: 16,89 denda 1.000 biztanleko.

- Datu hauei begira, nolakoa da egoera?

Beste sektore guztietan bezala, egoera ez da ona. Gainera, udaberriaren euria erruz egin du eta horrek eragin kaltegarria izan du, batez ere sektorean pisu handia duten oinetako eta arropa-dendetan. Halere, Irun, merkataritzari dagokionez, indartsu dabil. Komertzioaren kalitatea, profesionaltasuna eta Irunen kokapen geografiko ona dira krisiak hain gogor jo ez izanaren arrazoi nagusiak. Gainera bezero-ihesa txikia da; alegia, irundarren gehiengo handi batek Irunen erosten jarraitzen du.

- Nolako eragina izan du Mugan Elkarteak?

Krisia gora behera, elkartekide kopurua mantendu da. Baja gehienak itxi duten dendariei dagozkie. Elkartekideak pozik daude Muganen kudeaketa eta ekimeneekin. Zorionez Irunen merkatariek badakite elkartearen bidez denon onura bilatzen

dela; horregatik, bazkideen kopurua ez da asko murriztu. Hain zuzen hori eskertu nahi diet guztiei, elkarteak mantendu izana. Eskertzekoa da, baita ere, Udalak merkatariei zuzendutako ekimenetan Muganeko kideak beti kontutan hartzen dituela, pizgarriak eskainiz.

- Zein ekimen burutzen ari da Mugan merkataritza bultzatzeko?

Irundarrak Irunen kontsumitzera bultzatzeko sentsibilizazio kanpaina burutzen ari gara hilabete hauetan. “Kontsumi ezazu Irunen, denon onurako” da goiburua. Bertako dendetan erosiz gero dirua hemen geratzen da: merkataria bere zergak ordaintzen ditu, beste establezimenduetan erosten du, iturginen zerbitzua beharko du, tailerrena...

- Merkataritza Biziberritzeko Plana lantzen hasia da. Zein izango dira ardatzak?

Eusko Jaurilaritzak finantzatu eta Udalak kudeatuta aurrera eramango da, merkatarien parte-hartzearekin. Orain artekoan aurkezpen bat besterik ez da egin eta hemendik aurrera ekintzak zehaztu beharko ditugu. Erabateko estrategia lantzea du xede, hainbat hobekuntza sustatuz: azpiegiturak, lehiakortasuna, hirigintza...

- Elkarteak zer eskatuko lioke Planari?

Jose Ignacio Bermudez, MUGAN Merkatarien Elkartearen presidentea



“Abian jarri dugun kanpainak irundarrek Irunen kontsumitzea du xede”

Gure nahia da Planak asoziazionismoa indartzea, kontsumoa areagotzea eta dagoeneko finkatuta dauden establezimenduak bultzatzea. KBiziak bezalako ekimenak oso ongi daude establezimendu berriak ireki daitezkeen; baina, laguntzeko orduan, urte asko lanean daramatzaten merkatariegan ere pentsatu behar da.

- Euskara eta merkataritza. Zein da

bikotearen egoera eta etorkizuna?

Agerikoa da gero eta establezimendu gehiagotan euskaraz mintzatzen direla. Muganen aldetik horixe da erronka. Gure ekintza guztietan euskara zein frantsesa ere erabiltzen dira. Erakundeei dagokionez, Udaleko Euskara Arloarekin aspaldi ari gara elkarlanean.



Aranibar industrialdea, 2
Xarlengo kalea, 4
IRUN 943 634080

www.bacalorjcodfish.com

KALEKO INKESTA



Zer iruditzen zaizu abiadura orduko 30 km-ra mugatu izana?



Jorge Arrieta

Gaizki iruditzen zait. Helburua txirrindularien segurtasuna bada, orduan bidegorriak egin beharko lituzkete, eta ibilgailuen abiadura-muga orduko 50 km-tan utzi. Hartu dituzten neurriek ez dute ezer konponduko, ez baitago denontzako espazioarik, eta gainera gidariek ez dute 30eko muga errespetatzen.



Gaizka Emazabel

Kasu batzuetan ematen du isunen bidez dirua ateratzea dela helburua. Esaterako, Hondarribiko hondartzan egin dutena gaizki iruditzen zait: abiadura mugatzeko koska kendu eta radarra ipini. Kolon ibilbidea bezalako lekuetan, berriz, abiadura murriztea egokia dela uste dut. Txirrindulariek eta gidariek ez dute elkar errespetatzen. Alderdi hori hobetu beharko litzateke.



Vicky Ardanuy

Ongi iruditzen zait. Halere, txirrindularientzat bidegorria egin beharko lukete, hori ezinbestekoa da. Kolon ibilbidean haurrak errepidetik txirrindaz ibiltzea arriskutsua iruditzen zait. Pena bat da berritu zutenean bidegorria egin ez izana. Horixe bidea, hiri iraunkorra lortzeko.



Joaquin Urra

Oso ongi iruditzen zait. Ni txirrindaz ibiltzen naiz eta hartutako erabakiari esker seguruago sentitzen naiz errepidean. Segurtasuna hobetzeko denok kaskoa eraman beharko geneuke. Ene iritziz, gidari gehienek ezarri berri den orduko 30 km-ko muga hori errespetatzen dute.



Mari Carmen Ballesteros

Ni oinez ibiltzen naiz batez ere, ez baitut gidatzeko ohiturarik. Gidariek orduko 30 km-ko muga errespetatu behar dute, baina kasu askotan ez dute betetzen. Egia esan, muga ezarri zutenetik kalean oinez noanean lasaiago nabilela esango nuke. Halere, txirrindularien eta ibilgailuen arteko "elkarbizitza" konpontzeko bidegorriak egitea beharrezkoa da.



Amaia Olaizola

Ongi iruditzen zait, txirrindulariek espaloietatik joan behar ez izateko. Hala eta guztiz, arau berri horrek ez du segurtasuna erabat bermatzen: gidariek beldurra ematen didate, ez naiz erabat fidatzen, denek ez baitute muga errespetatzen.



Loiola Zuazu

Nire ustez oinezkoen segurtasuna helburua bada, abiadura mugatzea komenigarria da. Halere, neurri hori ez zait iruditzen guztiz beharrezkoa denik. Ibilgailuek eta txirrindulariek segurtasunez errepidea erabiltzea nahi bada, orduan denek bete beharko dute ezarritako abiadura-muga. Esan behar da oinezko guztiek ere ez dituztela arauak errespetatzen. Denon ahalegina ezinbestekoa da.



Domingo Fonseca

Ni garraiolaria naiz, baina ez naiz hiriguneko kaleetan barrena sarri ibiltzen; horregatik neurri honek ez nau asko ukitzen. Ez deritzot egoki muga hiriko kale guztietan ezarri izanari. Abiadura horretan kotxeak ez direla mugitzen ematen du. Bestalde, onartu behar da segurtasuna areagotzen dela, eta aita bezala lasaiago nago nire alaba txirrinduaraz ibiltzera joaten denean.



Gidariak abiadura moteldu dutela uste du Udaltzaingoak

Joan den uztailetik hirigunean orduko 30 km-ko abiadura gainditzea debekatuta dagoela adierazten duten seinaleak jarri dituzte Irunen. Informazio kanpainaren bigarren fasea hasiko da laster. Oro har, ibilgailuak lehen baino motelago dabiltzala uste du Udaltzaingoak.



Ezkerrean, farolan ikus daitekeen tresnak ibilgailuen abiaduraren inguruko datuak jasotzen ditu.

Debekua hiriko kale guztietara zabaldu dela jakinarazteko kanpainaren lehen fasea irailarekin batera amaituko da. Jarraian, urrian, bigarrenari ekingo zaio, indarrean jarriko diren salaketa eta isunei buruzkoa. Aldi berean, radar gehiago ipiniko dute. Urte amaieran, araua eta ez betetzearen ondorioak erabat ezarriko dira. Beraz, Mugikortasun Mahaiaren erabakiz, urte hasieran Irun izango da abiadura orduko 30 km-ra murrizten duen Gipuzkoako lehen hiria.

Ibilgailuak, mantsoago

Cristina Laborda Mugikortasun udal ordezkariaren esanetan, “bi hilabetetik hona udaltzainek inpresioa dute gidariak, oro har, abiadura moteldu dutela. Txirrindulariek ere onartzen dute hala izan dela”.

Neurri berri honen helburua errepidean oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna hobetzea da, hain zuzen.

Haren ustez, “txirrindulariek galtzada barruan ibiltzeko ohitura hartuko dute autoek abiadura murrizten dutenean eta, aldi berean, txirrindu gehiago daudenean, ibilgailuek abiadura-muga beteko dute”. Ildo honetatik, txirrindua garraiobide gisa bultzatzeko orduan Europako ereduari erreparatu zaiola dio udal ordezkariak. “Europar bigorriak aisialdirako erabiltzen dira eta hiri-inguruetan kokaturik daude. Gainera, eraikitzea oso garestia da”. Helburua txirrinduaren eta ibilgailuen arteko bizikidetzeta lortzea da.

Abiadura murriztu ondoren, Irungo zentroan oinezkoen gunek bultzatzeko neurriekin jarraituko du Udalak. Hala, Luis Mariano, San Juan eta Urdanibia eta inguruak oinezko gunek bilakatzeko prozesuan aurrerapausoak emango dira.

Bestalde, Berrotaran, Legia eta Joaquin Gamon kaleetan orduko 20 km-ko abiadura-muga indarrean jarriko da.



Kolon ibilbidean abiadura-muga orduko 30 km-koa da 2011z geroztik.



Erosteko, saltzeko edo alokatzeko modurik eraginkorrena.

Olazabaldarrak: boterea nola lortu eta mantendu zuten Irunen



Ana Galdos, Belen Sierra, Mertxe Tranche eta Jose Monje.

2009. urtean Ana Galdosek eta Mertxe Tranche Udal Artxiboaren Serapio Mujika beka irabazi zuten. Urte hauetako ikerketa-lana liburu mardul bezain interesgarri bilakatu da. Olazabal familia boteretsuaren zantzuari jarraiki, XV. mendetik XVIII.era bitarteko Irungo historia idatzi dute.

Los Olazabal: un ejemplo de surgimiento, persistencia y transformación de las élites en Irun izenburuko argitalpena Irunek badu Historia bildumaren 11. zenbakia dugu, eta dagoeneko HAZ bulegoan zein Irungo Artxiboan eros daiteke 15 €tan. Obra ez da familia pribilejiatu baten biografia kolektibo hutsa. “boteretsuen taldearen funtzionamendua berri izateko erabili ditugu olazabaldarrak, eta bide horretatik Irungo historia ezagutzeko aukera izan dugu”, azaldu zuen Ana Galdosek aurkezpen ekitaldian. Bereziki deigarria gertatu zitzaizen egileei familiak XV. mendean geroztik urte luzetan ahaltsuen taldean mantentzeko gaitasuna, hartara bitarteko politikoei, ekonomikoei eta sozialei

egokitzeko estrategiak baliatuz. Belen Sierra Kultura ordezkariaren esanetan, “Liburu honen bidez zehaztasun osoz sartzeko gara olazabaldarren barruan. Izen hori lotuta dago aspalditik gure hiriko txoko eta eraikin enblematikoei, hala nola Olazabal gainarekin eta Arbelaitz jauregiarekin. Irungo familiarik inportanteenetarikoak izan zenaren inguruan gehiago jakiteko behar ditugun arrastoak ematen zaizkigu”.

Hiru atal


Ikerlanak 3 atal ditu: Erdi Aroa, Iraunkortasuna eta Egokitzeko estrategiak. Lehen olazabaldarra Juan Martínez de Olazabal izan zen, burdinola baten jabea. XVII. mendean, haren ondorengo bat, Juan Olazabal Enparan, In-

dietako komertzioak erakarrira, aberastu eta Irunera itzuli zen. Hark lortu zuen familiaren ibilbidean giltzarri izango zena: maiorazkoa sortzea. “XVIII. mendean olazabaldar batek erregeren zerbitzura, beraz boterari lotuta, egotea lortu zuen”, adierazi zuen Mertxe Tranche. “Mende hori oso interesgarria da Irunen independentzia gauzatu zelako. Udaletxearen eraikuntza kari, independente izatea zeini interesatzen zitzaion agertzen da”.

Bizitza publikoa ez ezik intimoa ere jasotzen du lanak: nola bizi ziren, zer pentsatzen zuten, zer sentitzen eta sufritzen zuten, bikote-harremanak eta hurrekikoak...

Lan bikaina

Jose Monje artxibozainaren laguntza biziki eskertu zuten egileek. Haren iritziz, “lan hau ez da datu bilketa soila, hiriko historia beste ikuspuntu batetik eta testuinguru zabalago batean ikertzea baizik”. Artxiboko arduradunaren aburuz, emaitza “bikaina” da. Ikerlariak Irungo Udalarri eskerrak eman zizkieten, “horrelako bekak emango ez balitu ikertzea oso zaila litzatekeelako”.



Irudian, liburuaren azala. Bertan, Olazabaldarren etxea agertzen da, gaur egun Artaleku kirolegia dagoen orubean kokaturik zegoena. Lana HAZ bulegoan eta Irungo Artxiboan salgai dago 15 €tan.



- Indoor zikloa
- Tonifikazioa
- Pilates
- Step
- Zumba
- Muskulazioa
- Karatea: haurrak/helduak
- Tai chi
- Defentsa pertsonala
- Kick boxing
- Brasiliar Jiu Jitsu



Irungo Mendizaleek 65 urteko ibilbidea egin dute

1930eko hamarkadan mendizaletasuna gorpuzten hasi zen gure eskualdean, eta 1948an Irungo Mendizaleak Elkarteak sortu zuten 20 bazkidek. Egoitza Larretxipi kalean zuten. Handik oso hurbil, Kontrakalean, hirurogeita bost urte bete dituzte jada; haatik, ez dute erretiroa hartzeko asmorik, ez eta hurrik ere! Sasoian dago elkar- tea: 960 bazkide eta jarduera pila, horren lekuko.

1950eko hamarkada kirol alorreko lehen lorpenena izan zen; esaterako, Francisco Etxenike eta bere alaba Julita lehenbizikoz Bulnaseko Naranjora igo zirenekoa, Julita izaki lehen euskal emakumea.

Hurrengo hamarkadan Serapio Mujika kaleko egoitza erosi zuten, handiagoa zelako; handik aurrera elkartearen jarduera zabaldu egin zen, hainbat sail berri garatuta: eski alpinoa, nordikoa eta zeharraldikoa,

goi-mendia, eskalada, mendi-bizikleta, espeleologia...

Asko dira nabarmentzeko kirol emaitzak; tartean, Jose Luis Sesma 1986an Shisha Pagma (8007 m.) gailurrera heltzen Espainiako aurrena izan zela.

1995ean Bidasoa-Pamir espedizioak Korzenewskaya (7.105 m.) tontorra erdietsi zuen, Euskadiko lehenak eta Espainiako bigarrenak izaki.

Aro berria

2003an erronka handia gauzatu zen, Kontrakaleko lokal berriaren inaugurazioa, hain zuzen ere. Berrikuntza nagusia, atal gastronomikoa gehitu zitzaioela. Zokueta jattetxea zegoen lokala ere erosi zuten, bertan bulegoa eta hitzaldiak, ikastaroak eta halakoak egiteko areto bat ere atondu zizuztela.

Joseba Redondo 1999az geroztik presidente dago. Aro berriarekin batera elkar- teak mendian ibiltzeko modu berritzaileari ekin zion. "2001ean Pirinioetako zeharkaldia antolatu genuen, etapaka. Sekulako arrakasta izan zuen, 300dik gora lagunek egin baitzuten". Halaxe, bazkideek eskatzen zuten mendi txango antolatuen bide- tik jarraitu zuten. "Bazkideak oso integratuak egotea lortu dugu, urte guz- tian zehar irteerak eskaintzen dizkien egu- tegi bat prestatuz", dio presidentek.

Aurtengo udan Europako Gailurretan aste- betez ibili da autobuskada bat mendizale. Kostaldeko zeharkaldian jada Unquera- raino heldu dira, eta urrian, azken urteo-

tan egin ohi duten bezala, Kanariar uhar- teetara joango dira mendi txangoa egitera. Datorren urterako Esloveniako Alpeak di- tuzte jomuga. Irundarrak ez dira parte- hartzaile bakarrak, Donostiako eta Nafarroako mendizale batzuk ere elkar- tzen zaizkie eta.

Honek guztiak, jakina, alde zurretiko an- tolaketa-lan dexente dakar herrestan. "Au- tobusekoen eta oinezkoen ibilbideak, ostatuak... "Bai, logistikak denbora eska- tzen du, baina nik benetan gozatzen dut prestatzean, bai eta ondoren ere, jendea- ren gustukoa dela ikusita", aitortu du Re- dondok.

Dantza

Irungo Mendizaleak helduentzako dantza ikastaroak eskaintzen hasi ze- netik, jarduerak gora egin du. Gaur egun 100 lagun dabilta eskolan. Baina lokaletik kanpo ere burutzen dute jarduera, erromerietara dantza egitera joan ohi dira eta.



Mozorroak eta osagarriak
AU PALAIS DE CRISTAL
Su artifizialak eta euskal jantzi tradizionalak
Palais du Cristal. 16 Rue du Port. Hendaia. +33 (0) 559 483758



Leka Enea mahai tenis taldea: erraketa gogor astintzen duten profesionalak



Ezkerretik hasita atzera: Iñaki Salaverria, Unai Loiarte eta Endika Gonzalez jokalariai. Eskubitik hasita atzera: Olatz Zuazua jokalaria eta Iker Martinez entrenatzailea.

80ko hamarkadan eman zituen lehendabiziko urratsak Leka Enea mahai tenis taldeak. Harrez geroztik haien arrakastak ez du mugarik ezagutu.

Krisi ekonomikoak baldintzatutako garaiotan, hastear dagoen denboraldirako dituzten helburuak eta ametsak ezagutu ditugu.

Leka Enea mahai teniseko kluba erreferente bat da euskal kirolean. Kategoria gorenera iritsi zenetik poza besterik ez dio eman gure hiriari. Aurten, maila gorenari eusteko gogor borrokatu beharko du taldeak; izan ere, aurrekontuaren murrizketa dela eta, ezin izan dute fitxajerik egin. "Gure helburu nagusia bi talde gorenak Superdivision dei-

turiko mailan mantentzea da; baina, krisia dela eta, Kirolgik ematen zigun laguntza % 40-% 50ean murriztu zaigu", dio Iker Martinez entrenatzaileak. Gauzak horrela, etxeko gazteen formakuntzan guztiz zentratuta dago talde irundarra. "Etxeko gazteak eta euren formakuntza da gure helburu eta kezka nagusia gaur egun, beraiek baitira gure etorkizuna eta gure itxaropenik behinena".

Gazte horien artean Unai Loiarte dugu. Bere abentura mahai tenisaren munduan orain dela 6 urte hasi zen. "Uda Errioxan pasa ohi dut, eta han eman nituen nire lehendabiziko urratsak kirol honetan. Bertan, mahai teniseko mahai bat dago. Nahiz eta jokatzeko jakin, taldean hasi nintzenez gauza tekniko ugari ikasi behar izan nituen, kalean aritzeak edo hemen aritzeak ez baitu zerikusirik". Iñaki Salaverriak eta Endika Gonzalezek ere ondo ezagutzen dute kirol hau, ordu ugari sartzen baitituzte asteazken zehar Hirubideko gimnasioan. "Asteazken hiru edo lau egunetan entrenatzen dugu eta entrenamenduak bi ordukoak dira, baina momentuz ikasketekin bateragarriak dira" adierazi dute bi gazteek.

Mahai tenisa uste baino esfortzu fisiko handiagoa eska-

tzen du. Horretaz gain, faktore psikologikoa ere oso garrantzitsua da. Olatz Zuazua lehen taldeko jokalaria esanetan, "zure burua oso ondo ezagutzen eta kontrolatzen ikasi behar duzu. Nire kasuan, mahai tenisa arreta eta kontzentrazioa garatzeko balio izan dit, eta hori ikasketak aurrera eramateko ere oso garrantzitsua da".

Bestalde, hemendik gutxira, Sonia Etxazarreta Mahai Tenis Teknikazio Guneak irekiko ditu bere ateak. Taldeko presidentek eta zuzendaritza-batzordeak lan handia egin dute azken urteotan proiektu hau aurrera ateratzeko, eta badirudi, azkenean, helburua lortu dutela. Jokalariarentzat, berriz, motibazio gehigarri bat da. "Oso berezia da gure entrenatzailea zenaren izena daraman teknikazio gunean entrenatzea eta jokatzeko. Orain dela pare bat urte hil zen, baina haren oroitzapena gurekin dago eta honek indarra eta motibazioa ematen digu aurrera jarraitzeko eta gure helburuak lortzeko bidean", dio Olatz Zuazua, hunkiturik. Hala, bada, datozen asteetan zentru berriko mahaietan ikusiko ditugu gure neska-mutilak, erraketa gogor astintzen dutelarik, bidean agertzen den edozein erronkari aurre egiteko prest.

COMPRO ORO Y MÓVILES

KOLON ibilbidea, 41
943 610932 IRUN



T. 678 617 907

mgrotulos@gmail.com

Pedro Manuel
Aristegui kalea, 12
IRUN



Ezkerrean, iazko lasterketa San Juan Harria plazan.

500 korrikalarien muga gainditu nahi du Irungo Gaueko II. Herri Lasterketak

Heldu den irailaren 21ean egingo da Herri Lasterketa berezi honen II. edizioa. Korrikalariak 20:30ean abiatuko dira San Juan Harria plazatik, eta 6,5 km-ko ibilbidea egin beharko dute hiriko kale nagusiak zeharkatuz.

Asko eta asko dira kirol proba berezi horretarako kronometroa eta kirol oinetakoak jada prest dituztenak. Hala ere, azken orduko despistatuak lasai egon daitezke, oraindik ere badute izena emateko astirik. Eguzkia ezkutatzean egiten den lasterketa honetan inskripzioa egiteko bi modu daude. Lehendabizikoa, Internet bidezkoa. Kirol Probak (www.kirolprobak.com) atarian sartu eta agertzen diren urratsak jarraitu besterik ez dago. Mendibil Merkataritza Gunean ere, larunbatean bertan arratsaldeko 17:00etatik 19:30era, izena eman dezakete korrikalariak. Dorsalak, berriz, ostegun, ostiral eta larunbat goizean jaso daitezke "Deportes González" dendan. Larunbat arratsaldean, berriz, Mendibil Merkataritza Gunean. Izen-ematearen prezioari dagokionez,

13 euro balio du txip horia hautatzen dutenentzat, eta 15 euro alokatutako txipentzat.

Lasterketa San Juanen hasi eta bukatuko da eta, esan bezala, Irungo kale nagusiak zeharkatuko ditu: Kolon Ibilbidea, Gipuzkoa eta Nafarroa etorbideak, besteak beste. Comarca Aldea kirol-klubak Irungo Udalarekin batera bultzatzen duen ekimen horren irabazien zati bat DOA Gobernu Kanpoko Erakundearentzat eta Bidasoa K.E.arentzat izango dira. Era berean, lasterketan izena ematen duten guztiek txartel bana izango dute Kale Nagusiko hainbat tabernatan "pintxo-pote" batez gozatzeko. Horretaz gain, lasterketa amaitzean, Deportes Gonzálezek kirol materialen zozketa egingo du parte-hartzaile guztien artean.

Lehendabiziko edizioan Eneko Garin izan zen garaile gizonezkoetan, 19'09"-tan. Bigarren eta hirugarren, berriz, Iñaki Gebrero (19'23") eta Ibai Alba (19'45") izan ziren. Emakumezkoetan, Mertxe Bautista (24'44"), Olatz Zabala (25'41") eta Marisol Martínez (25'50") igo ziren podiumera. Lehendabiziko edizioak 300 bat korrikalari erakarri zituen eta arrakasta itzela izan zen. Hala ere, antolatzaileak ez dira horrekin konformatzen eta aurrean 500 korrikalarien kopurua erdietsi nahi dute. Beraz, korrika egitea atsegin baduzue, ez bitan pentsatu eta izena eman Irungo Gaueko II. Herri Lasterketan!



Iazko edizioaren kartela.

Martiarena S.L.
SISTEMA ELEKTRIKO INTEGRATUAK

Teknologia berriko LED argiak

- ✓ Instalazio elektrikoak orokorrean
- ✓ Dekoraziorako eta industriarako argiztapen azter-lanak
- ✓ Telefono instalazioak
- ✓ Informatika-sareak: ahotsa eta datuak, kobrezkoak zein zuntzezkoak (ziurtagiridunak)
- ✓ Instalazio domotikoak
- ✓ Argiztapen instalazioak zuntz optikoan

Salis hiribidea, 32 behe. Tel 943 630 710 - 609 406 735 - Telekopia 943 639 761
martiarenasl@martiarena.es - info@martiarena.es - www.martiarena.es

500 haurrek parte hartuko dute aurtengo Eskola Kirola programan



Goian eta eskuinean, eskubaloia. Behean, neskek softbolean.



Ikerketen arabera, kirola egiten duten haurrek bizitzan zehar jarduera fisikoa egiteko probabilitate gehiago dute, eta horrek osasunerako dituen onurak esan gabe doaz. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Irungo Udalarekin batera, Eskola Kirola programa antolatu du aurten ere, euskaraz hainbat kirol egiten ikasteko parada eskaintzen duena.

Hasiberria den ikasturte honetan Irungo ikastetxeetako 500 bat haurrek parte hartuko dute Eskola Kirola programan, 46 talde mistotan banatuta.

Gelatik irtenda, kirol arropa jantzi eta ikastetxean bertan, as-tean bitan ordubetez hainbat kirol egiten ikasiko dute. Benjaminen (8-9 urte), saskibaloia, eskubaloia, futbola, errugbia, atletismoa eta igeriketa. Udaleko Iñaki Iturrioz kirol teknikariak dioenez, "aurten jarduera berria egiteko aukera aztertzen ari gara: esku-pilota".

Alebinen (10-11 urte) kasuan ez da igeriketa egiten, "eta softbola ziurrenik kenduko dugu, softbol elkarte desagertu denez gero kirol hau praktikatzen jarraitu nahi dutenei ezin baitzaie erantzunik eman. Baina baliteke erraketa-kirolak programan sartzea".

Ohi bezala, ikasleek hitzordua larunbatero izango dute, taldeen artean jokatzaren ligaxketako partiduetan ikasitakoa praktika dezaten.

Talde mistoak

Aurten ere neska-mutilez osatutako taldeak antolatuko dira, "bateratutako hezkuntzaren aldeko dema egin dugulako", dio Iñaki Iturriozek. "Egokia deritzogu, adinaren eta ahalmenaren aldetik nesken eta mutilen artean ez legokeelako alde handia egon beharko". Aldea, izena ematen duten neska eta mutil kopuruan dago: neskek % 20-25 inguru izaten dira; mutilak, berriz, % 75-80.

Ikertatzaileen azteketen arabera, haurtzaroan kirola egiteak ez du ziurtatzen heldu izatean jarduera fisikoa egiten jarraitzea, baina probabilitate gehiago dago. "Azterketa hauen ondo-

rioetako bat da, halaber, kirola neskentzat bereziki onuragarria dela. Zehatzago, hezurren osasunean eragina du. Horregatik neskek parte hartzera animatu nahi ditugu" azpimarratu du Iturriozek.

Irakasle profesionalak

Haurren irakasleak profesionalak dira, lan hori burutzeko formakuntza berezia jaso dutenak, kirol arloari zein euskarari dagokionez. Udal teknikariak azaldu du irakasleen lana ez dela bat-batekoa. "Metodologia bat garatu da eta saioak zehatz prestatzen dira. Balioak lantzeari berebiziko garrantzia ematen zaio. Errespetua, talde-lana, ardua eta hobekuntza bezalako balioek emaitzak baino pisu handiagoa dute".

BPXport Kirol Zerbitzuak enpresak kudeatuko du ikasturte honetan programa.

Izena emateko epea, irekita

Eskola Kirola Irungo Udalak antolatzen duen eskolaz kanpoko kirol-egitasmoa da.

Zeinentzat: LHko 3. mailatik 6.era bitarteko ikasleei zuzendua.

Egutegia: 2013ko urriaren 1etik 2014ko maiatzaren 31ra.

Izen-ematea: Irailaren 16tik 20ra, Irungo ikastetxeetan, HAZ/SACen edo www.irun.org helbidean.

Prezioa: 120 € (urrian). Nahi izanez gero, bi epetan ordain daiteke: 60 € urrian eta 60 € urtarrilean.

Bigarren Hezkuntzakoak helburu

Eskola Kirola Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6.enera bitarteko haurrei zuzendua da. Zer gertatzen da bigarren hezkuntzara iristen direnean? Kirola egiten jarraitu nahi duenak beste bide bat bilatu behar du. Lehen Hezkuntzako programari jarraipena emateko, duela hamar urte Ikas Sasoi abian jarri zen, eskolan nahiz eskolatik kanpo jarduera fisikoa egiteko aukera eskaintzen zuen programa. 2003tik, ordea, ez da berriro gauzatu. Ikasturte honetan Irun Sasoi berreskuratuko dela iragarri du Udalak.

Irungo La Salle LH 4



Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Irunero non eskura dezaket?

San Juan
Gaztelumendi
Manolo
Sargia
Udal Liburutegia
Gazte Informazio
Bulegoa
Arano
Corner
Fotokop

Nafarroa hiribidea
Erka material
elektrikoa
Kutxa
Ogi Berri
Hawai
Erauskin

Santiago
Aguirre
Txingudiko
Zerbitzuak

Toma Pan y Moja
Haizea
Swing

Urdanibia plaza
Migel
Ospitale zaharra
Euskaltegia
Euskadiko Kutxa
Eskina
Lasa harategia

**Dunboa/Palmera -
Montero/Arbes**
Osasun Zentroa
Tahona
Zura
Anetxe
La Agricola
Amalen paper-denda
Biribil

Behobia/Azken

Portu
Azken Portu
kiroldegia
Ogi Berri
Hawai
Hizkuntza Eskola
Eguneko zentroa
Kuttuna
haurtzaindegia

Kolon ibilbidea eta inguruak
Cadillon Hortz Klinika
Brasil gozotegia
Ogi Berri (Kolon)
Ciaboga
BBVA
Kutxa
Anbulatorioa
Artaleku kiroldegia
Virginia kafetegia
Edurne kafetegia

Erauskin
(Luis Mariano)
Sirimiri
Turismo Bulegoa
SAC-HAZ
Real Union taberna
Gaudi
Mendibil ardoteka
Merkairun
Naroa kafetegia
Jaiberri
Luis Mariano
pentsiodunen etxea
Hawaii
Ketan
Santander bankua
Solbes
Oskarbi
Kutxa
Euskadiko Kutxa
Peinart ileapaindegia

Pio XII
La Tahona
Ñ kafetegia
Ogi Berri
Alvaro paper-denda
Erauskin

San Migel
Tabisa
Caser egoitza
Jaizibea okindegia
Senosiain harategia
Dumboa fruta-denda
Uranzu azoka
Gizarte
Segurantzako
Institutua
LANBIDE
BBVA
Santander bankua
Dani urdaitegia
Erauskin

Sabadell
Euskadiko Kutxa
Kutxa
Sotero taberna
Baztan taberna
Ogi Berri-Ogitxu
Aguirre
Adriana Barrios
ileapaindegia

Antzaran
Picking Pack
Rosi kioskoa
Amantegui Hortz
Klinika

Anaka
El Espazio
Kutxa
Mariño
Ogi Berri
Anaka okindegia
Washington taberna

Jaizkibel
janari-denda
Pablo harategia
Anaka Berri erretegia
Covirán Anaka

Puiana
Tahona
Puiana taberna
Ospitalea
Endanea

Larreandi
Larrarte harategia
Toma Pan y Moja
Pedro arraindegia

Elizatxo
Martindozenea
gaztelekua

**Ikasturtean zehar
Irungo ikastetxe guz-
tietan**

Zoriontasunik ote

Ikerketen arabera, zoriontasuna pertsonengan helburu bat lortzean agertzen den sentimendu edo egoera animikoa da, endorfinen agerpenarekin sortzen dena. Baina zer da benetan zoriontasuna edo zoriontsu izatea?

Zoriontasunaren kontzeptua oso irekia da eta herrialde bakoitzaren kulturaren arabera aldatzen da. Hala ere, adinak ez al du eraginik izango honetan guztian?

Umetan, bizitzaren udaberria, jostailuekin edo parkeko lagunekin jokoan aritzea nahikoa genuen zoriontsu izateko. Udako sasoi beteetan gaudenok, hau da, gazteok, jasaten ditugun aldaketa fisiko-psikologikoak direla-eta, zoriontasun hitzak gugandik alde egin izan balu bezala sentitzen dugu. Udazkeneko hego haize ukitua dutenen artean, guraso badira, seme-alabak ongi ikusteaz zoriontsu izaten dira. Eta bizitzaren neguan daudenak, alegia, gure aitona-amonak, beren burua bakarrik ez ikustearekin, eta inguruan jendea ikusi edota sentitzearekin aski dute zoriontsu izateko.

Mendebaldeko herrialdeetan, Grezian adibidez, filosofo eta pentsalariak, gai hau betidanik argitzen eta argudiatzen saiatu izan dira. Ekialdeko lurraldeetan, aldiz, zoriontasuna gizakiaren armonia perfektuan lortzen den egoera emozionala litzateke. Gaur egungo gizarte modernoan zoriontasunaz eman dezakegun definizioa honela laburbil dezakegu: zoriontasuna norberaren ekintzek mugatzen duten egoera da. Honela, gaur egun, zoriontsu omen da gauza materialak lortu eta lortu ari den pertsona, nahiz

eta lor-tzen dituen horiek baliagarri, erabilgarri edo probetxurako ez badira ere. Gaur egungo gizarte honen helburuetariko bat kontsumitzeko heztea da eta horrek, ondorioz, zoriontasunaren esanahia aldatu eta mugatzen du.

Baina, zoriontasunak, urtearen moduan, lau urtarotara ote ditu? Guk benetan uste dugu zoriontasunari ezin zaiola irteera edo helmugarik jarri, ez dugu uste zoriontasuna ezarritako irizpide batzuen baitan dagoenik. Argi dagoena zera da, pertsonak izanik, zoriontasuna dela bizitzaren oinarri nagusia; eta honexegatik egunero, momentu oro, sumatzen ditugun ezkutaleku eta zirrikitu guztietan honen bila ibiltzen gara, azken finean ongi bizi eta sentitu nahi dugulako ibilbide honetan.

Gure iritziz, nahiz eta ez ohartu. Izan ere, magiajoko jokoa bailitzan, zoriontasuna agertu eta desagertu egiten baita, norberak egunero bizi dituen hainbat une

xumez osaturik dago: batzuek

ageriko egoeretan edota materialen aurki dezakete zoriontasuna, eta beste batzuek, aldiz, modu lasai batean, ametsak, erronkak, saiakerak, eta abar gauzatzen edo lortzen dituztenean.

Erromatarren "Carpe diem" edo estatubatuarrek erabiltzen duten YOLO (You Only Live Once = Behin bakarrik bizi zara) siglak zoriontasuna egunerokoan dagoela adierazteko erabiltzen da. Zuek zein duzue gustukoago?

GERMAN EIZAGIRRE, ISABEL LOSANTOS
ETA JON ROZAS
TOKI ALAI BHI



TWITER ETA TELEBISTA, ENTRETENIMENDUA BIDER BI



Sortu zenez geroztik, telebista izan da entretenimenduaren ardatz nagusietakoa gure kulturaren eta gure gizartean; gaur egun, ordea, garrantzia galtzen ari da, funtsezko ezaugarri bat eskas duelako: norabide bakarrekoa denez, ezin

denbora errealean elkarreragile izan.

Aspaldi honetan, programa batzuetako arduradunak konturatu dira ikusleek sare sozialetan hitz egiten dutela telebistan ikusten ari direnaz, lehen ere lanean edo eskolan edo kafe bat hartzean egiten zuten bezala.

Ondorioa begien bistakoa da: gero eta programa gehiago dira twitter-eko hashtag iragartzen dutenak, ikusleek programak aurrera egin ahala parte hartzeko aukera izan dezaten. Izan ere, jendea haiei buruz hizketan ari bada, zergatik ez bideratu, audientzia fidel bihurtzeko eta programaren alde baliatzeko?

Halatan, bada, arrakasta duten programa batzuk, hala nola reality-show delakoak, salaketakoak, futbolekoak... pantaila anitzeko ikuskizun bihurtu dira, begi batek telebistari erreparatzen dion bitartean besteak sakelako telefonoari adi baitago, batera irakurtzen eta idazten ari garelarik orduantxe gertatzen ari den zerbaiti buruz, bitxia, hunkigarria, barregarria delakoan.

Programarentzat, onura argi eta garbi dago: ikusten ari ez zen jendeari iristen zaio mezua, eta deiaren deiaz programaren audientzia ez ezik, oihartzuna ere areagotu egiten da.

Ikuslearentzat abantailak are handiagoak dira: programa motel samarrak benetan dibertigarri bilaka daitezke twitertze zorrotzen txio garrantzei esker. Eta programa kalitatekoa bada informazio gehigarriak, iritziak eta kritikak lor daitezke.

Smart-tv delako internetdun telebista inteligenteak iristearrekin batera, goian aipatutako joera areagotu egingo da ziurrenik, eta oso urte gutxi barru telebista norabide biko tresna izango da, ikusleok aktiboki parte hartu ahal izango dugu eta.

Oraindik probatu ez baduzu, gomendatzen dizut arrakastako programa bat ikusi eta haren twitter hashtag (#)ean sartzea, eta ikusi ahala jarraitzaileek publikatzen dutena irakurtzea. Aspertu, behintzat, ez zara aspertuko.

Pablo Moratinos

Marketing Online-ko aholkularia.
3yMedia Comunicación Digital

Zatoz La Agricolara partidua ikustera eta dasta ezazu Ukraniako plater tipiko bat



La agrícola
J A T E T X E A
Alzukoitz, 1. 943 244118



Errealak



Shakhtar Donetsk

Irailak 17 20:30

IRUN ROCK JAIALDIA HELDU DA

Irun Rock Jaialdiak aurten laugarrenez bertako zein kanpoko taldeen musikaz bustiko du gure hiria. Sekula baino potentetago datorkigu, eta berritua. Irailaren 27tik 29ra burutuko den ekitaldiaren kartela II bandek osatua da.

Gazteei zuzendutako udazken honetako jarduera garrantzitsuenetako bat da Irun Rock Jaialdia. Ekimena Irun Zuzenean izeneko proiektuaren barruan dago eta aurten bi eszenatokitan burutuko da: Tunk aretoan eta San Juan Harria plazan. Halaxe iragarri zuten aurkezpenean Belen Sierra Kultura zinegotziak, Iñaki Estevez Men of Rock musika elkarreko ordezkariak, Joseba Lopetegik -ekitaldiaren laguntzaile diren ostalarien izenean- eta Tunk aretoko Iñaki Abuinek.

Belen Sierrak azpimarratu zuen Irun Zuzenean proiektuak handitzen jarraitzen duela. "Jaialdia laugarren edizioarekin dator eta jauzi kualitatibo handia dakar. Hiru egunetan zehar egingo diren kontzertu-programa bizi batekin heldu zaigu. Irungo publikoaren eta jaialdia aitzakia hartuta gurera bisitan etorriko den ororen eskura jarriko du musika estilo sorta ederra".

Programak denok ezagutzen ditugun tokiko bandak nahiz ibilbide garrantzitsuko kanpoko taldeak ezagutzeko aukera emango du.

EGITARAUA

Irailak 27. 20:00etan Tunk aretoan

- ✓ LOST ACAPULCO (Mexiko)
- ✓ LAS CULEBRAS (Iruñea)
- ✓ ROLLING DICE (Donostia)

Irailak 28. Programako egun nagusia.

San Juan Harria plazan, 18:00etatik aurrera

- ✓ SEX MUSEUM (Madril)
- ✓ ARIZONA BABY (Valladolid)
- ✓ PANTONES (Madril)
- ✓ SUPERSWEET (Donostia)
Performs *Tommy* by The Who
- ✓ REDNECK SURFERS (Salamanca)
- ✓ LAS PRIMITIVAS (Hondarribia)

Irailak 29. Jenaro Etxeandia plazan jaialdiari amaiera emango zaio 13.00etatik aurrera

- ✓ THE ROMANTICOS (Tolosa)
- ✓ OCTOPUS GARDES (Irun)
The Beatles Tribute



GazteArtean: udazkeneko egitaraua



GazteArtean egitarauaren baitan bi ekintza antolatu dira udazken honetarako:

- GazteArtean-KUNSTHAL Diseinu Lehiaketa

Gaia: Jada erabiltzen ez diren objektuen berrerabilera.

Hainbat lan mota onartzen dira: aplikazio grafikoak, brikolajea, espazio itxien dekorazioa...

Hiru kategoria ezarri dira:

- Banaka: 14 eta 17 urte bitartekoena. 400 €ko saria.

- Banaka: 18 eta 22 urte bitartekoena. 400€ko saria. Kunsthal-en ikasketak egiteko beka bat.

- Taldean: 16 eta 22 urte bitartekoei zuzendua. Saria: 600 €ko balioa duen sormenarekin lotutako esperientzia bat.

Izena emateko epea: Irailaren 15etik azaroaren 30era.

- Bideoklip sorkuntzari buruzko Workshop-a

- 18 eta 25 urte bitartekoei zuzendua

- Iraupena eta tokia: 30 ordu, 9 saiotan banatuta. Irailaren

21etik azaroaren 14ra, Gaztelekuan

Edukia: Ikus-entzunezko sektore honetako oinarrizko ezagupenak menderatzea.

Parte-hartzaileek Istriar musika taldearen bideoklipa landuko dute.



Bekak

- **UNIBERTSITATEAZ KANPOKO IKASLEEI** bekak emateko deialdia zabaldu du Eusko Jaurlaritzak. 2013-2014 ikasturtea.

www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Epea: Urriak 15.

- **PRAKTIKAK EUROPAR PARLAMENTUAN:** Schuman bekak. Betebeharrak:
- Unibertsitate-titulua.

Edukia: bi modalitate daude: orokorrak eta kazetaritza-koak. Bost hilabetekoak izango dira.

Epea: Urriaren 15a.



- **JUAN SAN MARTIN BEKA** lkerketa esparrua: Kazetaritza

Deialdigilea: Eibarko Udala eta Udako Euskal Unibertsitatea.

Eskaerak:

Irailaren 2tik urriaren 11ra.

Informazioa:

943 70 84 00.



Lehiaketak

"KOMIKIAK ERE EUSKARAZI!"

LEHIAKETA

Deialdigilea:

Saure Argitale-txea

Baldintzak:

- 14 urtetik gorako ikasleak

- Lan bana aurkeztu ahal izango da.

Epea: Urriak 18.

Informazioa: www.ecomic-experience.com

KOMIKIAK ERE EUSKARAZI LEHIAKETA



- **I EUSKARAZKO NAZIOARTEKO**

XABIER LETE POESIA SARIA

Deialdigilea: Gipuzkoako

Foru Aldundia

Baldintzak:

Lanak euskaraz, originalak eta argitaratu gabeak izan behar dira. Ez dira onartuko itzulitakoak.

Epea: Urriak 14

Informazioa: Koldo Mitxelena Kulturunea.



- **ARGAZKI LEHIAKETA.**

Calcuta Ondoan GKEk bereziki gazteei zuzendutako argazki lehiaketa antolatu du.

Gaia: Globalizazioaren ondorioen inguruko gogoeta kiritikoa.

Epea: Urriak 25.

Informazioa:

www.calcutaondoan.org



Azterketa eta ikastaroak

- **IT TXARTEL EGIAZTAGIRIAK** ESKURATZEKO AZTERKETA.

Noiz: Irailaren 24an

Non: Irungo KZGunean

Ordutegia:

11:00etatik 13:00etara



- **ELIKAGAIEN MANIPULATZAILEA (ONLINE)**

Noiz: Irailak 23-Abenduak 27 12 bat orduko iraupena (ez presentzialak),

Nori zuzendua: LANBIDEn izena emanda eskaera alta-egoeran dutenei.

Azterketa bai da presentziala, Bidasoa Bizirikoko El Espazioko bulegoetan.



Legaleon T antzerki tailerrak

- **LEGALEON T-K HAUR, GAZTE ETA HELDUENTZAT ANTZERKI TAILERRAK** ANTOLATU DITU.

INFORMAZIOA ETA MATRIKULAK: 676 53 65 46

EPEA: IRAILAREN 9TIK 20RA, 11:00ETATIK 14:00ETARA

LEGALEON-T, ANAKAN (IRUN) IRUNGO UDALAREN BABESPEAN



Gazteentzat diru laguntzak

- **IRUNGO UDALAK GAZTEEN ELKARTE ETA TALDEEI** diru laguntzak emateko deialdia zabaldu du.

Xedea:

Elkartek nahiz elkarte izaera ez duten taldeek eska ditzakete, urte osoko



egitarau sozio-kultural zein ekintza zehatzak antolatzeko.

Epea:

Urte osoko egi-

taraua: Irailak 23

Ekintza zehatzak:

Urriak 31.

www.irun.org/igazte

Udal Euskaltegia

- **TALDE BEREZIAK** AHOZKO TREBETASUNA LANTZEKO
- **GURASOENTZAKO, MERKATARITZAKO ETA OSTALARITZAKO** IKASTAROA
- **AUTOIKASKUNTZA TUTORE BATEN LAGUNTZAREKIN**
- **EGA IKASTAROA**K INSTITUTUETAKO IKASLEENTZAT
- **AZTERKETAK** PRESTATZEKO IKASTARO ESPEZIFIKOAK



EPEA: IRAILAK 20
TEL: 943 505 273

euskaltegi@irun.org



zure enpresari internetetik zabalitzen laguntzen diogu

- marketing online
- bideo online
- web orriak
- sare sozialak
- formakuntza



www.3yMedia.net

Irailaren 1etik 30era
Plaiiaundiko Parke Ekologikoan
Argazki erakusketa



Naturaren inguruko argazki erakusketa: *Beste mundu batzuk: txikiaren unibertsoa.*

Urriaren 27ra arte
Diasso Museoa
Erakusketa




Inbasio Napoleonikoak 1808-1813. Erakusketa Irunen, Bergaran eta Tolosan aurkeztuko da, frantziarren aurka probintzian izandako gudazelaiaren herrietan, alegia.

Irailaren 20tik urriaren 13ra
Amaia KZn

Erakusketa

Adour Bidasoa Margo Lehiaketan parte hartu duten lanen hautaketa bat ikusgai. Sari banaketa urriaren 6an egingo da.



Irailaren 10etik 25era
Emakumeen Jabekuntzarako eskola

Emakumeentzako Irungo Jabekuntza Eskolaren helburua hainbat adin eta interesetako emakumeak indartzea eta sustatzea da. Zenbait ikastaroren bidez, emakumeei beren eguneroko bizimoduan eragiten dieten baliabide eta erabakien inguruko ahalmena



bultzatzea da asmoa.

Izen emateko epea: Irailaren 10etik 25era.
www.irun.org
 Tel: 943 505152

Irailaren 21ean

Mugikortasunaren astea

- Zabaltza plazan 15:00etatik aurrera, txirrinduak konponetzen ikasteko tailerra, pintura lehiaketa eta beste.

- Bidegorrian, Santiago kalearen ondoan, 16:30ean, hirian txirrindua erabiltzeko ikastaroa.

Irailaren 21ean

Tren txikia

Zabaltza plazan

Goizeko 11:00etatik aurrera, 5 hazbeteko tren txikia. Bidasotarra 7301 Trenbidearen Lagunek antolatua da, Irunera trenbidea lehenbizikoz iritsi zela 150. urteurrena kari.

Irailaren 21ean

San Juan plazan

Gau lasterketa

6,5 km-ko gau lasterketa Iru-



nen barrena. Comarca Aldea Kirol Elkarteak eta Deportes González-ek antolatuta. Inskripzioak: www.kirolprobak.com

Irailaren 22an

Mugikortasunaren astea

Zabaltza plazan

Mugikortasun Iraunkorraren Astea kari, 15:00etatik aurrera hainbat jarduera burutuko dira.

Irailaren 27an

Hitzaldia Amaia KZn

19:00etan. *Metodo hipopresioa osasunean: hobekuntza estetikoak eta kirol alorrekoak.*

Irailaren 28an eta 29an

Erakusketa San

Vicente ikastetxean

Tren maketen erakusketa. Ordutegia:

Larunbatean: 11:00-13:30 eta 16:30-19:30.

Igandean: 11:00-13:30.

Urriaren 6an

Kontzertua

Amaia KZn

20:00etan, kontzertua *Viva Verdi*, Luis Mariano Lirika Elkarteak antolatuta. Sopranoa: Miren Urbietta



Sarrerak salgai: kutxanet-en, Irungo Turismo Bulegoan eta ikuskizunaren egunean, leihatilan. Bazkideak, 12 €, bazkide ez direnak, 16.

Stacie Collins + Sky Beats
KONTZERTUA



- Noiz: Irailak 29
- Non: Tunk! Aretoan
- Ordua: 22:00
- Sarrera: 10 € aldez aurretik, 12 € leihatilan.

Stacie Collins country kantaria da. Bere estilo berezia Roadhouse Rock n' Roll-arekin, Chicago Blues-arekin eta Honky-Tonk-Twang-arekin nahasten ditu. Harmonika bikain menperatzen duenez gero, horrek blues-aren goi mailaraino eramandu.

EVA PASCUAL
 ARGAZKILARITZA

WWW evapascualfotografia.com
 tel. 653 710 948

BAKAILAOA DASTA EZAZU



2013-2014 IKASTURTEA

Iruneen, Zuk Euskaraz!



Herri Jakintza

E U S K A L T E G I A

H A B E : Titulu Ofizialak

A u t o i k a s k u n t z a

- Euskara eskolak maila guztiak
- H.A.B.E. Titulu Ofizialak
- EGA
- Azterketen Prestaketa
 - Hizkuntz Eskakizunak
 - IVAP ·IRALE
- Guraso taldeak

Matrikula zabalik:
Irailaren 6tik - 26ra
11.00etatik - 13.00etara
17.00etatik - 19.00etara
Telefonoz (943 63 52 66) :
9.00etatik - 21.00etara
Posta elektronikoa:
herjak@terra.com

DIRULAGUNTZAK: IRUNGO UDALA / H.A.B.E.

Nafarroa hiribidea, 13.ean gaude, anima zaitez!